

ZUMALAKARREGI

KARLISTALDIA

Fernando VII-garrena 1833-an il zan. Eta bi zatitan banandua geratu zan Españaiko jentea. Barrizale edo liberalak aren alaba Isabelen alde jarri ziran. Eta lengozale edo tradizionalistak Fernadoren anai Karlosen alde.

Naiko sarturik eukezan ordurako bi taldeok euren musturrak Euskalerriko arazoetan.

Geure Lege-zaarrak kendu euskuezan barrizaleak 1812-an, Cadiz'en egindako legedi barrian. Eta urren etorri ziran lengozaleak lege barri orreik kendu, ta lengoak ezarri ebezen, barriro.

Oriegatik, bi talde artean Karlistaldi deitutako alkar-guda ori sortu zanean, joko orretan egoela Euskalerrriaren etorkizuna ere otu yaken euskaldunai; eta bertan sartu ziran eurok ere, itsu-itsuan.

Karlosen aide geienak, euren kristautasun eta lege-zaarrak gordetzeko asmotan.

Uri ta dirundun geienak Isabelen alde, barriz, euren lantegi ta salerosketako lege barri nasaia goen billa.

Lengozale edo karlistai «zuriak» eta liberalai «baltzak» deitzen eutsen erriak.

* *

URBASA'KO BASAKATUA

Errez ondatu ebezen Madridetik ona etorritako guda-rosteak gure basa-gudari exkaxak. Ondatu ta garbitu. Zumalakarregik ezin ikusi ori, ta Iruñian bizi zan lekutik urtenda, Urbasako mendira jo eban.

Urbasan inguruko gudariak batu, taldeetan eratu, ta Itxaso, Iturralde ta Zubiri gudalburuen ardurapean ipiñi ebezan.

Madrideko arerioak ori ikasi, eta bertako gudalbururik onenak bidaldu ebezen Zumalakarregiren aurka.

Oraa, buruzagi ospetsua izan zan lenengoa. Eta Urbasako oiñetara iritxi zanean, aren gainetara igotzeko ausardirik ez, eta jira ta bira asi zan, aren inguruan.

Alako batean, eta gitxien uste ebanean, Zumalakarregi, basakatuaren antzera, bat-batean gainera jauzi, ta erabat purrakatu ondoren, zekazkin zaldi, kañoi ta su-izkilloak kendu eutsozan.



Bardin egin eban, bata bestearen ondoren etorri yakoan, Lorenzo, Quesada, Rodil, Cordova, O'Donell ta Espartero beste gudalburu orreikaz ere.

Orrela gudu jantzi ebazan, apur-apurka, bere 20.000 mutil bizkorrak.

*

BILBO'N

Ez zan Madriden beste itxurazko gudalburik geratzen, eta Zumalakarregi Madridera abiatzeko asmotan egoan Zertarako? Karlos ori bere arrege-aulkian jarrerazo, eta Euskalerrira bihurturik, bertan, lengo Lege-zaarren babes eta askatasunean bizitzen jarraitzeko.

Eta ona, bitarte onetan, Karlosen manu larri bat: Bere mutil guztiak artu, ta arin Bilbora etorteko.

Zer jazo zan?

Bilbo ori artu ezkerok, len aren aurka ingeles eta prantzarrak alde jarriko zirala uste eban, antza.

Gogo txarrez abiatu zan Zumalakarregi.

Artagan'eko Begoña inguruko mendixketan altxaturik, gogor eraso eutson, aren oiñetan zabaltzen zan uri esituari.

Arin amaitu bai, eta egun bitan uriko arresiak zulatu, ta bertoko kañoak ixilleazo ebezan.

Eta urrengo egunean nundik jo, eta Bilbora sartzeko bideak antolatzen ebillen bitartean, ona Bilbo aldetik bala, galdu bat.

Bala orrek alboko arri bat jo, ekarren bidea okertu, ta Zumalakarregiren belaunean sartu zan saiezka.

* *

ERIoTZA

Ez zala gauza aundirik, baiña Zegama'ko bere senideen etxera eroan eben, bada-ezpadan.

Arin kendu eutsoen belauneko bala ori.

Baiña, andik bost egunetara, gorpu egoan gure Zumalakarregi andia.

47 urte bakarrik eukezan, it zanean, Ormaiztegi'ko seme prestu, euskaldun zintzo, eta gudalburu trebeak.

Au dogu, agian, geure artean iñoiz azalzu dan gudalbururik azkar, bulartsu ta ospetsuena.

Itz oneik esan ei ebezan, it aurrean: «Bala bakar eta kaxkar onegaz gizona il?».

Nork erail eban, beraz?

Laister zabaldu zan, pozoituta it zala gure gizona, bere osagilleak pozoituta, bai!

«Zurien» taldekoa zala, diñoie batzuk, osagille au; eta Zumalakarregiren kideko batek bekaitzez eragin ebala orretara.

«Baltzen» taldekoa zala, diñoie bestetzuk. Gure Zumalakarregi ilda bezain laister, «Baltzetara» pasa ei zan-eta...

Dana dala, azal zuri ala baltzekoa izan, ondo barru baltza eukan alango billaukeria egin eban gizon maltzurak.